

Patri maitea

AIZPEA GOENAGA

Aktore, zuzendari eta antzerkigilea

Ez nizun inoiz gutunik idatzi, eta inoiz ez omen da berandu.

Niretzat maisua izan zara. Maisua lanean aritu zaren arlo guztietan: euskararen aldeko lan nekaezinean, kulturaren sustapenean, eta, bereziki, euskal antzerkia ezagutarazteko eta zabaltzeko egin duzun ekarpen oparoan. Maisua zara, bai, antzerki tradizionala ezagutzeko egin duzun ahaleginagatik, baina baita egungo antzerkiaren alde egindako lanagatik ere.

Zure irakasle sena, unibertsitatean egindako ibilbide aberatsa, ikerketa lan zorrotzak eta belaunaldi berriei testigua pasatzeko erakutsi duzun eskuzabaltasuna... horiek guztiak maisutasunaren erakusgarri dira. Eta maisu izan zara argitaratu dituzun liburu eta artikuluengatik ere; Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko hari ia ikusezin baina sendo horiek ehuntzeko gaitasunagatik, eta antzerkiaren memoria jaso, gorde eta zabaldu izanagatik.

Zugan pentsatzen hasten naizenean, esker ona datorkit gogora. Neurri handi batean, zuk eman zenidan antzerkia idazteko lehen bultzada. Gogoan ditut aurkezpenen ondorengo solasaldi biziak, bilera informal haietako hizketaldiak. Hainbeste genuen elkarri kontatzeko. Hainbeste entzuteko...

Gogora datorkit, baita ere, Victoria Eugenia antzokiko Club aretoan ospatu genuen omenaldia. Mari Jose Olaziregirekin batera aritu ginen antolatzen, beste hamaika lagun laguntzaz. Ekitaldi xumea izan zen, baina bihotzez beterikoa: esker onez, miresmenez, maitasunez eta emozioz. Baina gertatu zen guztiaren gainetik egun hartatik datorkidan lehen gogoeta zure eskuzabaltasuna da. Baita inguruan zenituen lagun handiak, adiskide zintzoak ere. Guztiak parte hartu nahi zuten. Denei esaten genien labur hitz egiteko... baina ezin! Zuri buruz hainbeste esateko!

Antzezipen eder bat izan zen hura: zure bizitzaren ibilbidea, argazkien bidez eta lagun hitzen bidez marraztua. Lezoko familia arrantzalearen irudiak, zure konpromiso politikoa, Lezoko alkatetzan izandako garaien lekukoak, zure liburu eta ikerlanen zerrenda amaiezina... Eta han zeunden baita ere: unibertsitateko lankideekin eta ikasleekin ateratako argazkiak, Euskaltzaindiko lagunekin, sari banaketetan, lagun min eta familiakoekin kamarari irribarretsu begiratzen zenion irudi mordoa. Bizi oso baten arrasto aparta zen hura. Ezin ditut ekitaldia

amaitzerakoan esan zenituen hitzak ahaztu: «Nire mende Erdiko lanak ezingo nituzke burutu adiskide onen laguntzarik gabe (...) Eta, ¡viva la literatura, viva la música eta gora euskara!». Denok barrez amaitzea lortu zenuen. Gora zu!

Ederra izan zen zalantzarik gabe, zure lagun eta kolegen ahotan entzundakoa: Ramon Saizarbitoriak, Goio Monrealek, Joxerra Gartzia, Jon Cazenavek, baita Pilar Ruiz Va, Julia Butiña, Genaro Costas edo Jesús Prietok esan zituztenak ere, eta nola ez zure ikasle izandako doktore diren Arantzazu Fernandezek eta Idoia Gereñuk zuri buruz kontatu zizkigutenak. Zuk ere esan ohi zenuen: «Gogoia eta grina piztea da irakasle on baten egitekoa.» Eta zuk, Patri, hori aisa lortu zenuen: piztu zenuen grina, eta utzi duzu sustraitu den ondarea. Ereiten dena jasotzen omen da, eta zuk asko erein zenuen, baina zorionekoak gu, zuk ereindako hori guk jaso baitugu.

Zure antzerkiaren historiari buruzko liburuak, ikerketak, artikulak, zure poesia, eta ipuinak... eta izen handiko idazleen lana hobeto ezagutzen laguntzeko gutunak ere jaso zenituen, baita Agusti Chahorenak, Jon Miranderenak, Andima Ibinagabeitiarenak eta Koldo Mitxelenarenak ere. Zinez pertsona eskuzabala izan zara, eta gustura (eta eskertuta) irakurri dugu zure biografia zure webgunean oparo eskaini dizkiguzun lanen artean. Askorik zor dizugu eta oraindik behar zaitugu. Guran dago zure lana, guran jarraitzen duzu zuk.

Hain ondo ezagutzen zenuen antzerkiaren egoerak, zoritxarrez, bere horretan dirau: oinarrian daraman etengabeko estualdian. Antzerki amateur eta herrikoiek garai hobeak ezagutu dituzte, nahiz eta belaunaldi berriak lan gogorrean ari diren. Eta euskarazko antzerki profesionala, zure laguntzarekin lortu genuen maila hura... kostata ari da eusten. Beharko genituzke antzerki idazle gehiago, eta muntaia sendoagoak, eta euskaraz sortuak. Baina badakizu beti gabiltza aldaketaren esperantzan, beti estutasun eta behin-behinekotasunetik atera nahian.

Herri baten historia gorde egiten da zu bezalako ikerlari eta irakasleek jaso egiten dutelako. Eta jasotzen ez dena galdu egiten da. Zuk jaso zenuen guztia dela eta, gaur Euskal Antzerkiaren memoriak bizirik dirau, eta lanean jarrai dezakegu. Katea ez da, inondik ere, eten.

Eskerrik asko, Patri. Eskerrik asko betiko.

Maitasunez eta esker onez,

Aizpea